

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Elortza Gabilondo

*Bergara,
Gipuzkoa
(1950)*

Aurkibidea



Biografia



Bidegurutzetan jaioa. Aita bertakoa zuen, eta Lasagabaster ehun-lantegian egiten zuen lana. Ama Bergaran jaioa zen, baina Antzuolako Gorla baserrian bizi izandakoa. Bost senidetan gazteena zen Joxe Mari. Bergarako eskola publikoan ibili zen lehenenego, gero Eibarko La Sallen, eta Valladolidera joan zen Kimika ikastera. Euskaltzaletasunak bultzatuta, bueltan Bergarako ikastolan egon zen irakasle moduan. 1976an, berriz, Donostiako EHUrak joan zen, eta Kimikako fakultatean jardun du erretiroa hartu arte. Aitzindarietako bat izan zen klaseak euskaraz ematen. Kimikako hainbat liburu itzuli eta idatzi ditu euskaraz, eta 2012an CAF-Elhuyar saria eman zioten euskarazko testugintzan egindako lanarengatik. Rosa Mari Areizagarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba dituzte.

Zintak

BER-362

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-11-19
- **Iraupena:** 121 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Ama Gorla baserrian bizi izandakoa

- **Erref:** BER-362/002
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:02:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama bergararra, baserrian jaioa, baina hainbat bizitokitan bizi izandakoa. Aita ere bergararra, kalekoa. Ama gaur egun galduta dagoen Gorla baserrian bizi izan zen. Handik Antzuolako Uzarraga auzora joaten ziren eskolara.

2. Euskararen erabilera familian eta kalean

- **Erref:** BER-362/003
- **Iraupena:** 0:05:26. **Hasi:** 00:02:38. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amarekin eta osaba-izebekin harremana euskaraz. Bergarako hiru kale nagusiei begiratuta, Goenkalen eta Artekalen denek euskaraz egiten zuten; Barrenkalen, berriz, gaztelaniaz. Bera bizi zen Bidegurutzeta kalean eta San Pedron ere denek gaztelaniaz, nahiz eta euskaraz ulertu. Amak eta izebak beti euskaraz eta hika. Aitak elizan denbora asko pasatzen zuen eta, haren eraginez edo, gaztelaniarako joera zuen. Artekalen bizi zen lehengusuak euskaraz egiten zion Joxe Mariri eta berak gaztelaniaz erantzun.

3. Euskaraz ez zekielako, isilik

- **Erref:** BER-362/005
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:09:03. **Bukatu:** 00:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bergaran alde handia zegoen euskararen erabileran kale batetik bestera. Pixka bat koskortutakoan, Zubiaurreko lagun bat izan zuen. Han dena euskaraz egiten zen. Baita Altos Hornos inguruan ere. Pilotan jokatzera joaten zen hara. Euskaraz ez zekien eta isilik egoten zen. Inork ez zion esan inoiz euskaraz egiteko, ezta gaztelaniaz egiteko ere. Eskolan baserritarrek ziren batez ere euskaraz egiten zutenak. Gogoan du burla egiten zietela batzuetan.

4. Elementalean ikasleak euskaraz; euskara-eskolak

- **Erref:** BER-362/006
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bergarako Elementalean asko hitz egiten zen euskaraz mutikoen artean. Inguruetako mutikoak egoten ziren, bai Bergarako auzoetakoak eta baita Antzuolakoak edo Elgetakoak ere. 1963tik aurrera Txomin Amasorrainek eta Josu Oregik euskara-eskolak eman zituzten bertan. Joxe Mari ere joan izan zen eskola horietara. Iluntzeetan izaten ziren. Eskolan gertatutako anekdota. Orduan ikusi zuen lehenbiziko aldiz euskaraz h-a idatzita.

5. Oregiren eta Amasorrainen euskara eskolak Elementalean

- **Erref:** BER-362/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:19:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Elementalean Josu Oregik eta Txomin Amasorrainek eman zituzten euskara-eskoletara joaten hasi ziren arreba eta biak. Larzabalen 'Senperen gertatua' liburua erabiltzen zutela du gogoan; lapurteraz zegoen, baina aldamenean gipuzkeraz.

6. Lagun euskaldun batekin euskara praktikatzen

- **Erref:** BER-362/009
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan ez zuen euskaraz egiten. Euskaraz egiten zuen lagun batengana joaten zen euskaraz ikastearren. Etxean pentsatuta eramaten zituen zenbait esaldi. Aitarekin eta anai-arrebekin ez zuen euskaraz egiten eta amarekin ere oso gutxi.

7. Valladoliden unibertsitatean euskara irakasten

- **Erref:** BER-362/010
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Herriko eskoletan ibili ostean, La Sallen ibili zen Eibarren eta gero Valladolidera joan zen unibertsitatara, Kimika ikastera. Medikuntza ikasten ari zen Donostiako Kepa Urruzunok bultzatuta, ez zekitenei euskara irakasten hasi zen. Altunaren `Euskera hire laguna´ erabili zuen hasieran eta gero `Euskalduntzen´. Izan zituen zailtasunak.

8. 1968 inguruan Lur argitaletxeko liburuak irakurtzen

- **Erref:** BER-362/012
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:28:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

1968 inguruan, euskara eskolak ematen zebilenean, ez zekien nora jo. Lagun donostiar batek Lur argitaletxeko harpidetza zuen eta gogoan du hainbat liburu irakurri zituela: `Itxuraldaketa´, Amurizak itzulitako `Bai mundu berria´... Urretabizkaia edo Sarasolak itzulitako liburuak irakurri zituen, baina ez zekien nortzuk ziren.

9. Gerra aurreko eta osteko euskara idatzia; `Garoa´ eta `Pisia´

- **Erref:** BER-362/014
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:29:19. **Bukatu:** 00:32:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

H-a dela eta, istilu handia egon zen: bai/ez eta nola erabili. Berak kanpotik bizi izan zuen auzia. Arestiren zenbait lantxo ere eskuartean erabili zituen. Arestik proposatutakoak eta gero euskara baturako onartu zirenak. Gerra aurrekoen eta ostekoaren arteko txokea. Euskalkia vs batua. Aitak euskarazko bi liburu zituen etxean: `Garoa´ eta Gabriel Jauregi aramaioarraren `Pisia´. Fisikako liburua zen eta Aramaioko euskararen eta hika idatzita zegoen. `Garoa´koa euskara ezberdina; hiztegia behar ulertzeko.

10. Kimika ikasi eta Bergarako ikastolan irakasle

- **Erref:** BER-362/015
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:37:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Zientzia gustatzen zitzaion eta Kimika aukeratu zuen, gero fabrian lan egiteko aukerak ikusten zituelako. Baina irakaskuntzarako bidea hartu zuen, Bergarako ikastolan lehenengo eta geroago unibertsitatean. Aitak lan egiten zuen Lasagabaster oihala-lantegiko nagusiak han lan egitea eskaini zion, baina ezetza eman zion. Aitari ez zion graziarik egin, baina ez zion zuzenean ezer esan. Ikastoletan lizentziatu gutxi zegoen orduan.

11. Bergarako 60ko kultura-giroa; Simon Arrieta

- **Erref:** BER-362/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:41:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bergarako 60ko hamarkadako giro kulturala ez zuen asko ezagutu. Urretxindorrek taldeko kideetako batzuk ezagutzen zituen: Narbaez, Raul Calvo... Simon Arrieta margolariaren semea, Aurelio, bere klasean zegoen. Haren etxera joan zen batean ikusi zuen zein azkar margotzen zituen koadroak. Agustin Amasorrain.

12. Serafin Esnaola, ikastolako irakasleei euskara irakastera

- **Erref:** BER-362/019
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Serafin Esnaolarekin ez zuen harreman handirik izan. Bergarako ikastolan lanean zebilela, behin euskara-eskolak ematera joan zitzaien.

13. Frankismoaren kontzientzia gutxi

- **Erref:** BER-362/022
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:51:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Frankismo garaian 25 urtez bizi izan arren, ez zuen izan horren kontzientziarik. Ez zuen errepresiorik jaso eta debekurik ez zitzaiola iristen dio. Valladoliden

entzun zituen lehen aldiz kontu horiek, ikaskide batek Burgosko prozesuaren inguruan hitz egin zuenean. Manifestazioetara joan izan zen arren, sekula ez zuen arazorik izan. Valladolideko protestek beste konnotazio bat zuten. 1975ean, ezkon-bidaia itzuli zirenean, hasi zen jabetzen Euskal Herrian zegoen gatazka politikoaz.

14. Franco hil zenean frai Jazinto antxilotu zuten

- **Erref:** BER-362/024
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:51:47. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1975ean Franco hil zenean Bergarako ikastolan zebilen lanean. Gogoan du frai Jazinto atxilotu egin zutela. Hura zen ikastolako kopiagailuaren arduraduna eta itxuraz norbaitek kopiagailua erabili zuen panfletoren batzuk ateratzeko.

15. 1965eko Aberri Eguneko oroitzapenak

- **Erref:** BER-362/028
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:56:24. **Bukatu:** 00:57:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>1965eko Aberri Egunaz dituen oroitzapenak (1964a aipatzen du, baina 1965ean izan zen). Ikurrina. Beraien etxe ostetik jendea korrika, Poliziarengandik ihesi.</p>

16. Irakaskuntzarako materiala; matematikako kontzeptuak euskaraz

- **Erref:** BER-362/031
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:59:38. **Bukatu:** 01:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bergarako ikastolan irakaskuntzan hasi zenean, liburu asko makinaz euskarara itzulitakoak izaten ziren. Beste kasu batzuetan gaztelaniazko liburuak erabiltzen zituzten. Ez zekien matematikako kontzeptuak euskaraz nola esan. Geroago, Kimika fakultatean zebilenean, Udako Unibertsitatean hasi ziren horretaz eztabaidatzen, Iruñean. Ibon Sarasola zegoen tartean. Jesus Mari Goñik matematikaren inguruko liburu asko idatzi zituen. Berak ikusi zuen lehenengo matematika liburua Txilardegirena zen.

17. Elhuyar; kimika hiztegia; UEUrako liburuak

- **Erref:** BER-362/033
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:03:46. **Bukatu:** 01:07:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bergarako ikastola utzi eta Donostiara joan zen, Kimika fakultatera, unibertsitatean, irakasteaz gain, hainbat gauza ikasiko zituelakoan. Giro ezberdina aurkitu zuen Donostian. Elhuyarrekoak jada hasita zeuden fisika edo matematika gaiak euskaraz lantzen eta haiekin batu zen. Kimika hiztegia sortzen jardun zuen Mikel Zalbide eta beste zenbait kiderekin batera. UEUrako liburu sinpleak ere egiten zituen, ikasleekin batera.

18. Kimika fakultatean irakasle; euskaraz irakasten aitzindari

- **Erref:** BER-362/034
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:07:11. **Bukatu:** 01:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Kimika euskaraz irakasten lehenengotakoa izan zen; aurretik baziren beste batzuk: Jose Ramon Etxeberria, Jaxinto Iturbe, Luis Bandres, Antxon Santamaria... Egunkarian irakurri zuen Kimika fakultatean irakasle beharra zegoela. Doktoradutza eskatzen zuten eta, horretarako, unibertsitate-ikasketak eduki behar. Hemen unibertsitatea sortu berria zenez, irakasle gehienak kanpokoak ziren.

19. Unibertsitatean irakaskuntzarako euskarazko materiala sortzen

- **Erref:** BER-362/035
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:09:46. **Bukatu:** 01:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Unibertsitatean kimika irakasten hasi zen garaian, dena egiteko zegoen. Kontzepturik sinpleena ere euskaraz nola esan erabaki behar zen. Materiala sortzen hasi ziren. Leioako irakasleekin ere elkartzeko ziren, erabakiak hartzeko. Gerora, bakoitza bere materiala sortzen hasi zen, kontsultatu gabe.

20. Mikel Zalbide, kimika hiztegiaren koordinatzaile

- **Erref:** BER-362/036
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Elhuyar taldearen bilera batzuetara joan izan zen. Oso lotuta zegoen Udako Euskal Unibertsitatearekin. Kimika hiztegia sortu zuten. Mikel Zalbide ibili zen antolatzen. Lexikoaz gain, testu osoak nola idatzi zehaztu nahi izan zuten.

21. Kimika ikasketetarako euskarazko materiala sortu zuen

- **Erref:** BER-362/037
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:15:40. **Bukatu:** 01:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Unibertsitatean klaseak emateko zenbait liburu prestatu zituen: ' Termodinamika klasikoa ', gaztelaniazko apunte batzuk oinarri hartuta prestatu zuen ' Kimika Fisiko makromolekularra ' eta ' Kimika fisikoa '. Apunteak prestatu eta ikasleei banatzen zizkien, bere eskolak jarraitu ahal izateko. Berak sortutako materiala erabiltzea zen helburua. Laborategiko praktikak ere euskarara itzultzen zituzten.

22. Irakasleen borondatez irakasten zen euskaraz unibertsitatean; bilakaera

- **Erref:** BER-362/038
- **Iraupena:** 0:06:04. **Hasi:** 01:17:50. **Bukatu:** 01:23:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Kimika fakultatean irakasle lanean hasi zenean, gaztelaniaz ematen zituen eskolak. Gainera, mugak jartzen zizkioten euskaraz irakasteko. Hala ere, euskaraz irakasten hasi zen. Borondate kontua zen, ez zegoen programarik horretarako. Beste irakasle batzuek ere euskaraz irakasten zuten, beraiek hala nahi zutelako. Urte asko eta gero hasi ziren irakasle elebidunak eskatzen eta euskarazko ikasketak normalizatzen. Orduko gorabeherak. Gaur egun ez dago arazorik edozein ikasketa euskaraz egiteko, euskarazko materiala badagoelako.

23. Eskolan dena gaztelaniaz; neskak eta mutilak aparte

- **Erref:** BER-362/041
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 01:26:23. **Bukatu:** 01:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Herriko eskola nazionalean ikasi zuen lehenbizi eta gero Eibarko La Sallen. Umetan Marisol Peña izan zuen irakasle. Berdura plazako azken solairuan zeukaten ikasgela eta 70 mutiko inguru elkartzen ziren. Neskak frontoiko eskolara edo "Compañía de María"ra joaten ziren. Auzo-eskolak beharbada mistoak izango zirela dio, baina herrigunekoetan neskak eta mutilak aparte. Dena gaztelaniaz. Amari entzundako Uzarragako eskolako kontuak. Eskolan `Cara al sol´ eta `Por Dios, por la Patria y el Rey´ abesten zituzten.

24. Mutil gazteak "Juventudes parroquiales"era

- **Erref:** BER-362/046
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:37:35. **Bukatu:** 01:39:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

"Juventudes parroquiales" sortu zenean, gazte asko apuntatu ziren bertan. Lagunartean hitz egitera eta xakean edo kartetan jokatzera joaten ziren. Taberna ere bazegoen. Aurretik poltsak egiten zituen lantegi bat zegoen han. Nork lan egiten zuten bertan. Gerora egon zen Pol-pol taberna berak ez zuen ezagutu.

25. Bergaran euskararen alde jardundako hainbat pertsona

- **Erref:** BER-362/048
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:40:00. **Bukatu:** 01:42:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bergaran euskalgintzan lanean ibili diren pertsonak: Txomin Amasorrain, Josu Oregi, Martin Arana... Elementalean irakasle gehienak oso euskaltzaleak ziren.

Aranzadi ikastolak elizaren babesa izan zuen eta elizgizonak ere ibili ziren tartean. Fernando Etxeberria. Ikastolako lehen zuzendaria Jose Amilibia. Bera hasi zenerako ikastolaren legeztatzea erdi-bideratuta zegoen.

26. Etxeko hizkuntza-ohitura zergatik aldatu ote zen

- **Erref:** BER-362/050
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:43:18. **Bukatu:** 01:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak beti esaten zuen euren etxean Madrildik etorritako neskatila batek sartu zuela gaztelania. Joxe Marik ez du uste hala izango zenik, baina ezin du ziur esan. Neskatala hori aldameneko etxean bizi zen eta euskaraz ikasi zuen.

27. Elebitasunaren eragina

- **Erref:** BER-362/052
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:46:23. **Bukatu:** 01:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskaraz eta gaztelaniaz antzera zekitenez eta bietan ondo ulertzen zutenez, batzuetan ez zen konturatzen bestea euskaraz ala gaztelaniaz ari zen. Orain pentsatzen jarrita, ez daki ziur umetan edo gaztetan izandako elkarrizketak zein hizkuntzatan ziren edo inguruko pertsonak euskaraz ala gaztelaniaz egiten zuten.</p>

28. Euskaldunen konplexua; baserritarrekin euskaraz

- **Erref:** BER-362/055
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:50:27. **Bukatu:** 01:51:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bertako jendea euskaraz hitz egiteko lotsaz ikusten zuen. Kanpotik etorritakoek gaztelaniaz eta altu hitz egiten zuten eta, gaztelaniaz erraz egiten zutenez, bertako jendeak konplexua zuen haien aurrean. Baserrietan euskaraz hitz egiten zen eta baserritarrekin ere hala egiten zuten.

29. Bere euskaltzaletasunaren jatorria

- **Erref:** BER-362/058
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:53:36. **Bukatu:** 01:56:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bere euskaltzaletasuna beharbada euskaldunek zuten konplexua ikustetik etorriko zen, ama hitz egiteko lotsaz ikustetik. Berdura plazara joaten zenean gustura ibiltzen zen ama, hango baserritarrek euskaraz eta lasai hitz egiten zuelako. 15-16 urterekin hasi zen euskara ikasi nahi zuela pentsatzen. Gogoan du umetan behin ikaskide batek bitxikeria moduan kontatu zuela bere aitak euskaraz idazten zuela. Hori buruan geratu zitzaion.

30. Gaztetan deigarri egin zitzaizkion euskarazko kontuak

- **Erref:** BER-362/059
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:56:17. **Bukatu:** 02:00:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eskolan dena gaztelaniaz izaten zen. Behin Bergarako txistularia zen Bonifazio Laskurain joan zitzaion San Martinen ereserkia jotzera. Deigarria egin zitzaion hitzak euskaraz egotea. Eskolan euskaraz ikusi zuen lehenengo gauza izan zen. Urte batzuk geroago modan egon zen kotxeetan "Sonría por favor" lema jartzea. Euskarazkoa "Irripar egizu, arren" zen, baina kostatu egin zitzaion konturatzea, hitzak ez zituelako ezagutzen. Franco hil zenean atera zuten "25 pake-urte" lemarekin egin zituzten txisteak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com